

BASABURUA IMOTZ UDAL ELKARTZEA
P7102296F
31866 Basaburua

2024ko otsailaren 5ean Basaburua-Imotz udal elkartzeko lehendakariak, jarraian zehazten den erabakia hartu zuen:

2-2024 EBAZPENA

Basaburua-Imotz udal elkartzeko administrari laguntzaile lanpostua merezimendu lehiaketa bidez egonkortzeko prozesuaren barruan, 2024ko urtarrilaren 12ko ebazpen bidez merituen balorazioa behin betikoz onetsi zen.

Puntu gehien lortu duen hautagaiak deialdiaren 9. puntuan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa epean aurkeztu ondoren

EBAZTEN DUT

1.- Basaburuko-Imotz udal elkartzeko administrari laguntzaile lanpostua betetzeko Nerea Ripa Alberdi izendatzeko proposamena egitea, merezimenduen bidezko hautaketa-prozesua amaitu ondoren puntuaziorik handiena lortu duen hautagaia delako.

2.- Izendapen proposamena Basaburua eta Imozko udaletako web orrietan argitaratzea.

3.- Proposatutako izangaiak iragarkia Basaburua eta Imozko udaletako web orrietan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 10 egun balioduneko epea izango du deialdiaren 10.2 puntuan zehazten den dokumentazioa aurkezteko.

Denen ezagutzarako jakinarazten dut eta ohartarazten dut akordio honen aurka ondorengo helegiteak aurkeztu daitezkeela:

a) Berraztertze helegitea erabakia hartu duen organoaren aurrean, erabakia hartu eta hurrengo egunetik hilabete bateko epean

b) Administrazioarekiko auzi helegitea Nafarroako Administrazio auzi epaitegian bi hilabeteren buruan akordioa jaso eta gero.

c) Jasotzeko helegitea Nafarroako Auzitegi Administrazioan hilabete baten buruan erabakia jaso eta gero.

Jauntsaratsen, 2024ko otsailaren 5ean

LEHENDAKARIA

Izp: Santos Etxegia Oronoz